

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Diputatu Nagusiaren 116/2019 Foru Dekretua, martxoaren 8koa, Arabako kirol federazioei atxikita dauden kirol klub eta elkarteei 2019an emango zaizkien dirulaguntzen deialdia onestea

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak Arabako kirol federazioei atxikita dauden kirol klub eta elkarteei dirulaguntzak eman nahi dizkie 2019an.

Horretarako, nahitaezkoa da jarduera federatuek bete beharrekoak zehaztea, sailak dirulaguntza egokiak bidera ditzan.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

ERABAKIA

Lehena. Onestea Arabako kirol federazioei atxikita dauden kirol klub eta elkarteei laguntzetarako deialdi publikoa (2019 urtean, 98.000 euroko hornidura izango du, gehienez), Diputatuen Kontseiluaren 55/2015 Foru Dekretuaren pean izango da deialdia (55/2015 Foru Dekretua, urriaren 6koa, 2015eko urriaren 21eko ALHAOn argitaratua, 123. zenbakian), zeinaren bidez onartu baitziren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan norgehiagokaz ematen diren dirulaguntzetan aplikatzekoak izango diren oinarri arautzaile orokorrak.

Bigarrena. Dirulaguntza horiek Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko ekitaldiko gastu aurrekontuko 70.1.06.77.00.481.00.09 partidatik ("Klubentzako laguntza") emango dira ; lerroa: 70-116; xedapen erreferentzia: 105.886.

Hirugarrena. Kirol Zerbitzuaren proposamena aztertu ondoren emango du organo eskudunak bidezko ebazpena; horretarako sei hilabete izango ditu, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan ebazpen espresurik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa) 123. artikuluan xedatzen duenez, nahi izanez gero, berraztertzeo errekurtsioa aurkez dakioke Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan jo haren aurka, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegien artean dagokion hartan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeak (29/1998 Legea, uztailaren 13koa) 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa) 42. eta 43. artikuluetan ezartzen dituen moduetan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko martxoaren 8a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua

IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE

Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria

JOSEBA KOLDO PÉREZ DE HEREDIA ARBÍGANO

Eranskina

Diputatu Nagusiaren 116/2019 Foru Dekretua, martxoaren 8koa, Arabako kirol federazioei atxikita dauden kirol klub eta elkarteentzako dirulaguntzen deialdia, 2019ko jardueretarako

Lehenengoa.- Helburua eta xedea

Deialdiaren helburua da Arabako kirol federazioei atxikita dauden kirol klub eta elkarteak diruz hornitzen laguntzea, 2019an beren jarduerak garatzen ditzaten.

Bigarrena.- Aurrekontuei egoztea

Dirulaguntzen zenbateko osoa ezin izango da izan inoiz ere helburu horretara bideratu den zuzkidura baino gehiago, hau da, 98.000,00 euro baino gehiago. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko ekitaldiko gastu aurrekontuko "Klubentzako laguntzak" izeneko 70.1.06.77.00.481.00.09 partidaren kontura ordainduko da.

Hirugarrena.- Erakunde onuradunak

Onuradun izango dira Arabako kirol federazioei atxikitako kirol klub eta elkarteak.

Ez dira onuradun izango, ez Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emandako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onetsi zituenak, hirugarren oinarrian jasotako bazterte egoeretan dauden erakundeak, ez Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, araututako egoeraren batean daudenak.

Laugarrena.- Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta dirulaguntzen zenbatekoak programa bakoitzerako

Dirulaguntza jaso dezakete kirol klub eta elkarteek dituzten federazio lizentziek, kasuan kasuko Arabar Federazioak 2018an emandakoek. Arabar Federaziorik ez badago, kasuan kasuko Euskadiko Federazioak emandakoak izango dira aplikagarri.

Finantzaketa irizpideak ezartzeko, honako banaketa hau hartuko da kontuan:

1. maila. Beren jardunean honakoak eskatzen dituzten modalitateak: entrenamenduak maiztasun handiarekin egitea (askotan egunero), ia astero lehiaketa izatea, horrek dakarren antolaketa nabarmenarekin.

Atletismoa, saskibaloia, eskubaloia, txirrindularitza, kirol egokituak, futbola, gimnastika, hockey-a, euskal kirol eta jokoak, igeriketa, euskal pilota, errugbia, mahai tenisa eta boleibola.

2. maila. Entrenamendua maiz egitea eskatzen duten modalitateak, nahiz eta hori sarri askotan ez egon klubaren menpe, baizik eta kirolarien nahiaren menpe. Bestalde, lehiaketa maila nabarmen jaisten da aurrekoa lerroaldekoaren aurrean; izan ere, sarri askotan lehiaketak noizean behingo kirol topaketa batzuk eta Espainiako txapelketa batzuk baino ez dira izaten. Horrek denak ez du eskatzen antolaketa nabarmenik.

Xakea, badmintona, eskrima, halterofilia, judoa, karatea, borroka, padela, patinajea, squash-a, taekwondo-a, tenisa, arku tiroa eta triatloia.

3. maila. Entrenamendu arautuak eta maiztasun handikoak ez dituzten modalitateak; horiek praktikatzea interesdunen esku dago. Lehiaketa noizean behin izaten da, eta horrelakoetan, aurreko ataletakoen aldean, oso txikia izaten da klubaren eskakizun maila. Hori gorabehera, horietako modalitate/espezialitate batzuetan, aisialdirako joera nabarmena ikusten da.

Urpeko jarduerak, automobilismoa, beismola, billarra, bola jokoa, boxeoa, ehiza, aire kirolak, negu kirolak, uretako eskia eta motonautika, golfa, hipika, mendia, motoziklismoa, petanka, piraguismoa, tiro olimpikoa eta bela.

Bosgarrena.- Eskaerak aurkeztea

Kirol klub edo elkarteek eskaera bana baino ezin izango dute aurkeztu.

1. Eskaerak Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuari bidali behar zaizkio, l. eranskinean argitaratzen den ereduari jarraikiz.

2. Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

2.1. Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia.

2.2. Pertsona horrek erakunde eskatzailea ordezkatzuz diharduela egiaztatzen duen agiria.

2.3. Eskaera aurkeztu baino lehen erakundea identifikatzeko daturik aurkeztu ez bada, pertsona baimenduak sinatutako agiri bakar batean bildutako datu hauek aurkeztuko dira, erakundeari alta emateko edo kontabilitateko hirugarrenen fitxategian datuak eguneratzeko:

- Sozietatearen egungo helbidea, telefonoa, faxa eta/edo posta elektronikoa.
- Banku kontuaren zenbakia, IBAN kodearekin.
- Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia (IFZ).

2.4. Erakunde eskatzaileak soldatapeko langilerik baldin badu, egiaztatu egin beharko du bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 12.2 artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diola. Horretarako, gai horietan eskumena duten erakundeek egiaztagiria aurkeztuko ditu. Dirulaguntza 800 euro baino gutxiagokoa bada, ordea, ez ditu aipatutakoak egiaztatu beharko, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz. Zerga betebeharrerai dagokienez, baldin eta sozietatearen egoitza Araban daukaten erakunde onuradunak badira, nahikoa izango da egunean dituela adieraztea, eta Foru Aldundiaren zeregina izango da egiaztagiria egitea, Foru Ogasunaren bidez.

2.5. Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzenak, 29.3 artikuluan ezarritakoa betez, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak sektore publikoko hirugarrenekiko kontratuak xedatzen dituen araudiek kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen baditu, erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die, gutxienez, hiru erakunde hornitzaileari, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa beren gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa empresa ez dagoen zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen duenik edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin den.

Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan edo dirulaguntzaren eskaeran azaldu beharko dira. Haien artean hautatzeko eraginkortasuna eta irizpide ekonomikoak hartuko dira aintzat; hautatzen den eskaintza ez bada diru aldetik hoberena, hautapena memoria batean justifikatu beharko da.

Seigarrena.- Aurkezteko epea

Hogei egun natural izango dira eskaerak aurkezteko, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zazpigarrena.- Prozedura bideratzea eta balorazio irizpideak

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua da espedientea bideratzeko organo eskuduna.

Dirulaguntzak esleitzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1) Puntuak puntuazio baremo honen arabera banatuko dira:

- Izapidetutako edo emandako eta 1. mailako lizentzia federatu bakoitzari 15 puntu emango zaizkio.
- Izapidetutako edo emandako eta 2. mailako lizentzia federatu bakoitzari 5 puntu emango zaizkio.
- Izapidetutako edo emandako eta 3. mailako lizentzia federatu bakoitzari 1 puntu emango zaio.

2) Kirol klub edo elkarte bakoitzari jarduerak egiteko emango zaion laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko zatiketa egingo da laugarren oinarrian jasotako zenbatekoaren eta eskaera guztiek lortutako puntu guztien artean.

Zatiketa horren bitartez, puntuak zer balio duen aterako dugu, eta ondoren balio hori bider kirol klub edo elkarte eskatzaile bakoitzaren puntuak eginez gero, bakoitzari eman beharreko laguntzaren zenbatekoa aterako dugu.

Ez dira baloratuko egiaztatzen ez diren datuak.

Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, inolaz ere ezin dira sartu dirulaguntzaren xede diren gastuetan.

Zortzigarrena.- Ebazpena

1. Eskaerak Balioespen Batzordeak aztertuko ditu. Balioespen Batzorde horren burua Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria izango da, eta honako hauek izango dira batzordekideak: Kirol Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako bi teknikari. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoaren buruak jardungo du idazkari lanetan, hitzarekin baina botorik gabe.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz; eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan, gerta liteke espedientearen atzeratzea, eta are artxibatzea ere.

Balioespen Batzordeak txosten bat egingo du, deialdian ezarritako irizpideen arabera aurkeztutako eskaerak erkatu ondoren, eta bertan, egindako ebaluazioaren emaitza eta eskaeren lehentasun hurrenkera zehaztuko dira, hala badagokio.

2. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

3. Kirol Zerbitzuak proposatuta, organo eskudunak bidezko ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik lau hilabete igaro baino lehen. Epe horretan ebazpen espresurik ematen ez bada, interesdunek eskaera ezetsi egin dela ulertu behar dute.

4. Esleipen ebazpenean zer erakunde eskatzaileari eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

5. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpena ALHAOn argitaratuko da, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. Artikuluak xedatutakoa betez. Ebazpen horrek jakinarazpen balioa izango du.

6. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatuta.

Zuzenean aurkatu ezean, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin.

Bederatzigarrena.- Dirulaguntza ordaintzea

Ebazpena eman ondoren ordainduko da dirulaguntza.

Hamargarrena.- Bateriaezintasunak

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira Foru Aldundiko beste Sailetan edo hari atxikitako Erakundeetan jaso ahal diren bestelako laguntza ekonomiko edo dirulaguntzekin.

Hamaikagarrena.- Publizitatea

1. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.
2. Era berean, Arabako Foru Aldundiaren web orrian jarriko da ikusgai: www.araba.eus, Herritarrentzako zerbitzuak / Laguntzak eta dirulaguntzak izeneko atalean.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Eskabidea (I. eranskina)

Klubentzako Laguntzak

2019

Ayuda a Clubes

(Anexo I)

Euskera, Kultura eta Kirol
SailaDepartamento de
Euskera, Cultura y Deporte

ASUN

(Administrazioak betetzeko O A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA O SOLICITANTE (1)

Identifikazio agiria O Documento identificativo

IKZ O CIF

Identifikazio zk. O N° identificativo

Sozietatearen izena O Razón social

Helbidea (kalea) O Domicilio (calle)

Zk. O

Núm.

Letra

Eskra. O

Escal.

Solairua O Piso

Aldea O

Mano

Herrialdea O País

Probintzia O Provincia

Udalerrria O Municipio

Herria O Localidad

P. K. O C. P.

Posta elektronikoa O Correo electrónico

Telefonoa O Teléfono

Mugikorra O Móvil

Faxa O Fax

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA O DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL (2)

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute O No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) O Domicilio (calle)

Zk. O

Núm.

Letra

Eskra. O

Escal.

Solairua O Piso

Aldea O

Mano

Herrialdea O País

Probintzia O Provincia

Udalerrria O Municipio

Herria O Localidad

P. K. O C. P.

LEGEZKO ORDEZKARIA O REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da O Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria O Documento identificativo

NAN

AIZ

Besteren bat

Otro

Identifikazio zk. O N° identificativo

Sexua O Sexo

Emakumea

Mujer

Gizona

Hombre

Izena O Nombre

Lehen abizena O Primer apellido

Bigarren abizena O Segundo apellido

Posta elektronikoa O Correo electrónico

Telefonoa O Teléfono

Mugikorra O Móvil

Faxa O Fax

Orria ■ Hoja 1/6

Eskabidearen helbidea Dirección de comprobación
<https://e.s.araba.eus/wps/portal/consultacoe>Zurtagiriaren zk. Código de Verificación
rFA-knUx-19U-Xzzw



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Eskabidea (I. eranskina)

Klubentzako Laguntzak

2019

Ayuda a Clubes

(Anexo I)

Euskera, Kultura eta Kirol
Saila

Departamento de
Euskera, Cultura y Deporte

ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONAREN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA O DECLARACION RESPONSABLE DE LA PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD

Behean zehaztutako pertsonak, zeinak bertan sinatzen baitu, zinpean adierazten du azaltzen den entitateak baimenduta dagoela haren izenean aurkezteko erantsitako eskaera.

La persona abajo especificada, que firma la presente, declara bajo juramento que está autorizada por la Entidad que se señala para presentar en nombre de la misma la solicitud adjunta.

Izen-abizenak O Nombre y apellidos	
NAN O DNI	
Entitatea O Entidad	
IFK O CIF	
Kargua O Cargo	

.....
(Lekua eta data O Lugar y fecha)

Sinadura OFirma _____

(zigilua OSello)

**Eskaera sinatzen duenaren
NANaren fotokopia.**

(AURREKO ALDEAN)

Fotocopia del DNI de la persona
firmante de la solicitud.

(ANVERSO)

**Eskaera sinatzen duenaren
NANaren fotokopia.**

(ATZEKO ALDEAN)

Fotocopia del DNI de la persona
firmante de la solicitud.

(REVERSO)



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Eskabidea (I. eranskina)

Klubentzako Laguntzak

2019

Ayuda a Clubes

(Anexo I)

Euskera, Kultura eta Kirol
Saila

Departamento de
Euskera, Cultura y Deporte

BANKUEN DATUAK O DATOS BANCARIOS ⁽³⁾

(Banku helbideratzearen datuak aldatu badira bete soilik OCumplimentar únicamente en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

BANKUA ○ BANCO	
IBAN	SWIFT

(FINANTZA ENTITATEAK bete behar du) ○

(A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA)

Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) ○

Conforme entidad financiera (firma y sello)

.....(e)ko.....aren.....(e)an

En..... a..... de..... de.....

Finantza erakundeak ZIURTATZEN du lehen adierazitako banku kontua "ESKATZAILEA" atalean ageri den pertsona fisiko edo juridiko interesdunaren izenean eta IFZarekin dagoela irekita, eta pertsona interesdun hori kontuaren titular gisa ageri dela

La entidad financiera CERTIFICA que la cuenta bancaria anteriormente señalada figura abierta al NIF y nombre de la persona física o jurídica interesada que figura en el apartado "SOLICITANTE", y que dicha persona interesada figura como titular de la cuenta.

(ESKATZAILEAK bete behar du) ○

(A rellenar por la persona SOLICITANTE)

Hirugarren interesdunaren sinadura edota entitatearen zigilua ○

Firma de la persona interesada y/o sello de la entidad interesada

.....(e)ko.....aren.....(e)an

En..... a..... de..... de.....

ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT:

- Alta eskatzen da Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan, ESKAERA HONI IFZ-REN FOTOKOPIA ERANTSITA
- Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, dagoeneko altan egonik Arabako Foru aldundiaren hirugarren moduan

INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES:

- Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava, para lo cual SE ADJUNTA FOTOCOPIA DEL NIF A LA PRESENTE SOLICITUD
- Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava ya dado de alta.

Orria ■ Hoja 3/6



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Eskabidea (I. eranskina)

Klubentzako Laguntzak

2019

Ayuda a Clubes

(Anexo I)

Euskera, Kultura eta Kirol
Saila

Departamento de
Euskera, Cultura y Deporte

Behean sinatzen duen Arabako Federazioak
ZIURTATZEN DU
hemen zehazten den kirol klubak edo elkarteak
honako datu hauek izan dituela 2018an:

La Federación Territorial Alavesa abajo firmante
CERTIFICA
Que el club o agrupación deportiva indicada ha
tenido los siguientes datos en el año 2018:

Kirol kluba edo elkarte Club o agrupación deportiva

IFK OCIF

--	--

Kirol klub eta elkarteentzako laguntza **Ayuda a clubes y agrupaciones deportivas**

KONTZEPTUA <input type="checkbox"/> CONCEPTO	Kop. ONº
Izapidetutako eta/edo emandako federazio lizentzien kopurua Número total de licencias federadas tramitadas y/o expedidas 2018	


ARABAKO FEDERAZIOAREN ZIGILUA
SELLO DE LA FEDERACIÓN ALAVESA

Sin.

Fdº

FEDERAZIOAREN KIROL MODALITATEA
FEDERACIÓN ALAVESA DE

Orria ■ Hoja 4/6

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p> <p>www.araba.eus</p>	<p>Eskabidea (I. eranskina)</p> <p>Klubentzako Laguntzak</p> <p>2019</p> <p>Ayuda a Clubes</p> <p>(Anexo I)</p>
---	--

Euskera, Kultura eta Kirol
Saila

Departamento de
Euskera, Cultura y Deporte

Entitatea ○ Entidad	.
IFK ○ CIF	

ENTITATEAK AITORTUTAKO DATUAK ○DATOS DECLARADOS POR LA ENTIDAD
(Adierazi dagokiona ○Marcar lo que corresponda)

<input type="checkbox"/>	Entitateak EZ du soldatapeko langilerik: La entidad NO tiene personal asalariado
<input type="checkbox"/>	Entitateak soldatapeko langilerik ba du: La entidad SI tiene personal asalariado



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Eskabidea (I. eranskina)

Klubentzako Laguntzak

2019

Ayuda a Clubes

(Anexo I)

Euskera, Kultura eta Kirol
Saila

Departamento de
Euskera, Cultura y Deporte

Oharra (1)

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko Kirolariak izeneko fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamendua kirol jarduerak eta entitateekin zerikusia duten bekak eta dirulaguntzak kudeatzeko, kirol prestakuntzako ikastaroak egiteko, jarduerak ikuskatzeko eta iradokizunak kudeatzeko egiten da.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiela jakinaraziko beste batzuei, legez ezarritako kasuez kanpo.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, DBEOk aitortzen dituenak, eta, horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba).

Argibide gehiago:

<http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, posta elektronikoko bakarraren helbidea (EBH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

Oharra (3)

Zuk emandako banku datuak hirugarrenen eta interesdunen fitxategian erregistratuko dira, zeina Administrazio honen titulartatekoa baita, aurrekontuz gauzatzeari eta aurrekontuz kanpoko gauzatzeari dagozkion eragiketen izapideak egiteko. Atal honetan emandako datuak ez dira tratatuko edo komunikatuko, baldin eta lehenago egindako ordainketen ondorioz, dagoeneko alta eman bazaie identifikazio eta banku datuei, berriro ere kobratzea hautatzeko eman direnei

Oharra (4)

Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau ADIERAZTEN DUT

LEHENENGOA.

Ez ordezkatzeko dudak elkarre edo erakundeak, ez elkarre edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezin kidek ez duela sexua dela eta inor baztertzeko, ez zuzenean ez zeharka, onarpen prozesuetan edo funtzionamenduan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 24.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

BIGARRENA.

Ez ordezkatzeko dudak elkarre edo erakundeak, ez elkarre edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezin kidek ez duela zigorrik izan, ez arlo penalean ez administratiboan, sexua dela eta inor baztertzeko, eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasun arloan xedatutakoak urratzeagatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, lan arloko arau hausteei eta zehapenei buruzko legearen testu bateratua onartzen duenak, ezarritakoaren arabera.

Nota (1)

"Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que Vd. Nos facilita van a ser incluidos en el Fichero Deportistas titularidad de Diputación Foral de Alava cuyos tratamientos se realizan para la gestión de concesión de becas y subvenciones relacionadas con actividades y entidades deportivas, realización de cursos de formación deportiva, inspección de actividades y gestión de sugerencias.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava).

Para más información:

http://www.araba.eus/web/Avisol_egalAmpliado

Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una dirección de correo electrónico única (DEU) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente

Nota (3)

Los datos bancarios facilitados por usted se registrarán en el Fichero de Terceros e interesados titularidad de esta Administración para realizar la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria y extrapresupuestaria. No se tratarán ni comunicarán los datos cumplimentados en este apartado si como consecuencia de pagos realizados con anterioridad, ya estuvieran dados de alta los datos identificativos y bancarios por los que de nuevo se optara para el cobro.

Nota (4)

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

PRIMERO.

Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, realizan actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 24.2 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

SEGUNDO .

Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, han sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Texto Refundido de la Ley de Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Euskera, Kultura eta Kirol
Saila

Eskabidea (I. eranskina)

Klubentzako Laguntzak

2019

Ayuda a Clubes

(Anexo I)

Departamento de
Euskera, Cultura y Deporte